

MUGIKORTASUN ASTEA 08

Ondorengo aholku hauek beharrezkoak dituzu modu eraginkorragoan gidatu nahi baduzu. Dena dela, gogoratu nahi dizugu, ibilbidea laburra bada, hobe dela oinez edo bizikletan egitea edo garraio publikoa erabiltzea, ahal duzun guztietan. Zure osasunak, patrikak eta ingurumenak eskertuko dizute.



1 Ez gehiegi erabili airea girotzekoa edo egokitzekoa. Osagarri horietan dute, hain zuzen, eragin handiena errekinaren kontsumoan.

2 Abiadurak ez dezala gorabeherarik izan, konstantea izan dadila, eta ez gidatu zakar.

3 Ahalik eta martxa luzeenean ibili, biraketa-abiadura (erreboluzioak) txikien. Martxak gutxiagotan aldatu beharko dituzu eta % 20 ere aurreztu dezakezu errekinetan.

4 Inoiz ez jaitsi aldapa bat puntu geldian: errekinaren kontsumoak gora egiten du ralentian joanda; motor-balazta erabiltzen denean, aldiz, ez da ezer kontsumitzen. Gainera, horrela jaitea oso arriskutsua da, balaztek lan gehiago egin behar dutelako motor-balaztaren laguntzarik gabe eta gehiago gastatzen direlako.

5 Aldapan gora, berriz, ahalik eta martxarik luzeenean joan eta martxa motzagora ahalik eta beranduen pasa: adibidez, 5. martxan joan gaitezke abiadura 50-60 km/h-koa izan arte.

6 Ikusten baduzu 60 segundotik gorako geldialdia egin behar duzula, hobe duzu motorra itzaltzea. Ralentiko kontsumoa hau da: 0'4tik 0'7ra litro/h. Oraingo ibilgailu berrietan motorra piztu eta itzaltzeak ez du abiatze-motorra desgastatzen modelo zaharraoetan bezala.

7 Motor-balazta zer den gogoan izan: motor-balazta da ibilgailua bere inertiaren eraginez ibiltzen uztea, martxa bat sartuta duela eta azeleragailua zapaldu gabe. Motorrak biratzeko duen erresistentziak balazta moduan jarduten du eta horren ondorioz, abiadura apurka-apurka moteldu egiten da.

8 Gurpilek behar adinako presiorik ez badute, erresistentzia handiagoa da, motorra behartu egiten da eta, ondorioz, kontsumoak gora egiten du. **Zaindu presioa!**

9 Zaindu likidoen mailak eta iragazkiak. Garrantzi handikoak dira motorra baldintza onetan edukitzeko; bestalde, gutxiago kontsumitzen da eta CO₂ gutxiago isurtzen da.

10 Parrillan ekipaia edo karga eramaten bada, airearekiko erresistentzia handitu egiten da eta kontsumoa ere bai. Autopistan, adibidez, 120 km/h-ko abiaduran % 35 ere egin dezake gora kontsumoak!

TOLOSAKO  UDALA



tolosakoingurumenzentroa

TOLOSA2015 